

Berrikuntzaren transferentzia sustatzea mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainetarantz

2016/09/28

Irailaren 14an eta 15ean egin zen proiektuaren inaugurazio bilera, eta, iraungo duen 3 urteetan, 30 ikertzaile prestatu nahi dira eta 140 proiektu baino gehiago gauzatu.

Proiektua gidatzen duen erakundea Azaro Fundazioa da, eta Pirinioetako bi aldeetako beste sei erakunde ere badira: Kataluniako Generalitatea, Mondragon Unibertsitatea, Insup, Université de Perpignan, Estia eta Ariège Expansion.

Proiektuaren aurrekontua guztira 1.776.942,34da, Eskualde Garapenerako Europar Funtsak (FEDER) kofinantzatu du %65ean, Interreg V-A Espainia, Frantzia, Andorra (POCTEFA 2014-2020) bitartez. POCTEFAren helburua Espainia, Frantzia eta Andorra bitarteko mugako eskualdearen integrazio ekonomikoa eta soziala indartzea da. Laguntzaren xedea da mugaz gaindiko jarduera ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak garatzea, lurralde garapen iraunkorraren aldeko estrategia bateratuen bitartez.

